



**2023KO MARTXOAREN 20KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren hogeian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide eta Joxemai Ormazabal Sukia.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko martxoaren 6an egindako bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 15 zenbakidun fakturen zerrenda, HIRUROGEITA BI MILA ZORTZIEHUN ETA HEMEZORTZI euro ETA HOGEITA HIRU zentimokoa (62.818,23 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

**III.- PLAKA FOTOVOLTAIKOEN HORNIDURA ETA INSTALAKUNTZAREN KONTRATUAREN ALDAKETA ESPEDIENTEAREN ONARPENA.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2023-03-06an egindako bilkuran, San Prudentzio ikastetxean, Arerian eta frontoian, autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoak hornitzeko eta instalatzeko kontratuaren aldaketa espedienteari hasiera ematea onartu zuen; hornidura eta instalazio lanak Tapia Instalazio Elektroko S.L. enpresari esleitu zitzaizkion 131.581,21 eurotan, gehi BEZ.

Proposatu den aldaketa, kontratua arautzen duen administrazio-klausula berezien agiriari jasota ez dagoena, ez funtsezkotzat jotzen da, kontratuaren haserako objektua mantentzen baitu eta ez baitu oreka ekonomikoan eta kontratuaren eremuan aldaketarik sortzen.

2023ko martxoaren 13an, kontratistari eta obra zuzendaritzari entzunaldia egin zitzaizen, eguneko epea emanez alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Legearen arabera emandako epean, kontratistak eta obra zuzendaritzak ez dute alegaziorik aurkeztu.

Espedientean gordeta dagoen txosten teknikoarekin bat etorritz, hornidura-kontratua aldatzeko nahitaezko betekizunak betetzen dira, hau da, SPKLko 203. eta 205. artikuluetan ezarritakoak.

Kontratuaren aldaketa, kontratuaren epea 60 egun naturaletan luzatzean datza, eta San Prudentzio ikastetxearen eraikinean egin beharreko plaka fotovoltaikoen instalakuntzari dagokionean, Aste Santuko oporraldian, apirilaren 3tik apirilaren 16a bitartean burutzean.

Kontratuaren aldaketa honek ez du kontratuaren prezioan aldaketarik eragingo.

Aldaketarako espedientearen onesteko eskumena kontratazio-organoak du, hots, Gobernu Batzordeak, SPKLko bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarri denari jarraituta.

Hau guztia honela, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, akordio hauek hartu ditu:

**LEHENENGOA.** Honako kontratu hau aldatzeko espedientearen onestea: "San Prudentzio ikastetxean, Arerian eta frontoian, autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoak hornitzeko eta instalatzeko" lanak egiteko dena, Tapia Instalazio Elektroko S.L. enpresari adjudikatutakoa, esleipen prezioa 131.581,21 euro gehi BEZ direlarik. Proposatutako aldaketaren ondorioz, kontratuaren epea 60 egun naturaletan luzatuko da, eta San Prudentzio ikastetxearen eraikinean egin beharreko plaka fotovoltaikoen instalakuntzari dagokionean, Aste Santuko oporraldian, apirilaren 3tik apirilaren 16a bitartean, egingo da.

**BIGARRENA.** Kontratuaren epe luzapen honek ez du kontratuaren prezioan aldaketarik eragingo.

**HIRUGARRENA** Ebazpen hau kontratatari jakinaraztea, eta aditzera ematea, bate-tik, hamabost egun baliodun duela, haxe jaso eta biharamunetik hasita, kontratuaren aldaketa gauzatzeko, eta, bestetik, zein errekurtsu jar ditzakeen.

**LAUGARRENA** Aldaketa argitaratzea kontratatzailearen profilean, SPKLko 207. eta 63. artikuluetan agindu denari jarraituta.

#### IV.- PLAKA FOTOVOLTAIKOEN HORNIDURA ETA INSTALAKUNTZA LANEN 1. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Lazkaoko San Prudentzio ikastetxekoan, Arerian eta frontoian autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoak hornitzeko eta instalatzeko lanen obra zuzendaritza daraman Jorge Gomez Prieto ingeniariak, IP21 Ingenieria de Proyectos S.L. enpresakoak, lanen lehen obra egiaztatzea egin du.



Obra egiaztatzearen ondorioz, zenbatekoa BERROGEITA SEI MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR euro eta LAUROGEITA HEMEZORTZI zentimo (46.450,98 €) gehi BEZ-ari dagokion BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN eta BERROGEITA HAMALAU euro eta HIRU-



LAZKAOKO  
UDALA

ROGEITA HAMAIKA zentimo (9.754,71 €) da, BERROGEITA HAMASEI MILA BERREHUN ETA BOST euro ETA HIRUROGEITA BEDERATZI zentimo (56.205,69 €).

Hornidura eta instalakuntza lanak Tapia Instalazio Elektrikoak S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, lehen obra egiaztagiri hau aho batez onartu du.

#### V.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hauek onartu ditu:

#### Lazkaoko festetako esku programaren lehiaketako portada irabazlea.-

2023ko urtarrilaren 9ko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2023ko Lazkaoko festetako esku-programaren lehiaketako portada irabazleari 200 €-ko saria ematea erabaki zuen.

Lehiaketara aurkeztutako lanak 13 izan dira. Otsailaren 28an egindako Festa Batzordean, saria aho batez Jonathan Gonzalez Martin lazkaotarrari "Herriko plaza, jaien bihotza" izendatu duen irudiari ematea erabaki zen.

Hau honela izanik, Jonathan Gonzalez Martini 200 €-ko saria ematea onartu du Tokiko Gobernu Batzarrak.

#### Zagupe Astialdia Taldea.-

2023rako aurreikusitako dirulaguntzaren % 40, hau da 1.200 €, orain ordaintzea egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko.

Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 1 481.11.334.00 2023 partidatik egingo da.

#### Lazkao Txiki Musika Eskola.-

2023. urteko martxoan, V. Trikitixa Txapelketa antolatzeagatik 1.250,04 €-tako dirulaguntzaren ordainketa egitea.

#### VI.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO MERKATARIEN BONOEN KANPAINA.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko udaberriko plangintzaren barnean erosketa bonoen kanpaina antolatzeko proposamena egin du Jarduera Ekonomikoko batzordeak. Proposamenari erantsitako kanpainaren oinarrien ezauzgarri nagusienak ondorengoak dira:

- Epea: apirilaren 17tik maiatzaren 20ra.



- Kopurua: 2.000 bono jarriko dira salgai, 30 eurotan erosi eta 40 euroko erosketa ahalmena emango dute (10 euro hauek Udalaren diru laguntza izango da).
- Merkatariek bonoak jasoko dituzte beraien salmentetan eta ondoren Udalera ekarriko dituzte Udalak dagokien ordainketa egiteko.
- Gastua: 20.000 €, aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidalik ordainduko da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, merkataritzaren sustapenerako 2023ko udaberriko bonoen kanpaina hau onartzea erabaki du.

#### VII.- LANDA LURRA ARLOKO BASERRITAR EKOIZLEEN BONOEN KANPAINA.-

Lazkaoko merkataritza eta baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko plangintzaren barnean baserritar ekoizleen erosketa bonoen kanpaina antolatzeke proposamena egin du Landa Lurreko Batzordeak. Proposamenari erantsitako kanpainaren oinarrien ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:

- Epea: apirilaren 17tik azaroaren 30era.
- Kopurua: 200 bono jarriko dira salgai, 20 eurotan erosi eta 35 euroko erosketa ahalmena emango dute (15 euro hauek Udalaren diru laguntza izango da).
- Ekoizleek bonoak jasoko dituzte beraien salmentetan eta ondoren Udalera ekarriko dituzte Udalak dagokien ordainketa egiteko.
- Gastua: 3000 €, aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik ordainduko da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez merkataritza eta baserritar ekoizleen sustapenerako 2023ko bonoen kanpaina hau onartzea erabaki du.

#### VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamabost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

